



Ainhoa Barbarin euskal preso politikoa bigarren aldiz espetxeratu dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 03/08/2023

Otsailean lehen aldiz kendu zion hirugarren gradua Audientzia Nazionalak, ez zela nahiko damutu argudiatuta.

Pasaden ostegunean Eusko Jaurlaritzak hirugarren gradua onartu zioten arren, Ainhoak berriz ere espetxera itzuli beharko du, Audientzia Nazionalaren fiskalak aurkeztutako helegitea dela eta, izan ere gutxienez hauen partetik erabaki bat egon arte espetxean preso jarraituko duelarik.

Ez da lehenengo aldia gertaera hauek errepikatzen direnak izan ere Espainako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari espetheen konpetentzia eman zioenetik Audientzia Nazionalak sistematikoki helegiak aurkeztu ditu hirugarren gradua lortzen duten euskal preso politikoen aurka, gainera duela hilabete gutxi aldaketa bat eman zen eta helegia aurkeztearekin jada berriz espetxera buelta suposatzen du erabaki bat egon arte, egoera honek hainbat euskal preso politikoen espetxeratzea ekarri duelarik.

Oraingo honetan berriz Ainhoari gertatu zaio duela hilabete batzuk gertatutakoaren antzekoa, otsailean aske geratu zen baina Audientzia Nazionalak hirugarren gradua kendu zion bere damua ez zegoela nahiko argi argudiatuz. Ainhoa Barbarinek ordea hirugarren graduako eskakizunak betetzen ditu, izan ere kondenaren 2/3 beteta dauka.

<https://eh.lahaine.org/ainhoa-barbarin-euskal-presopolitika>